


KRONIKA

Arkitekturan, euskaraz?

2016/2017 topaketen kronika eta ondorioak



Ibai Gandiaga
Arkitektoa eta EHUko
irakaslea

Adur Ezenarro
Lezoko udal arkitektoa

Jasotze data: 2017-12-18
Onartze data: 2018-02-15

2016ko pentsamenduak

Arkitekturan, euskaraz nahi al dugu lan eta jolas? Egin al dugu inoiz obra baten Zuinketa Agiririk? Edo akaso Erreplanteo Akta deitu beharko genioke? Hik hapo edo pejeou esaten dionk? Bizi osoa eraikuntza egiten genuela pentsatu, eta hara non eraikingintzan adituak bilakatu garen! Egikaritzea, bizitoki, erreten zein zorrotan... hitz arruntak bezain arrotzak, arkitekturaren munduan.

Arkitektura euskaraz ikasi genuenon lehenengo belaunaldia mundu profesionalaren lubakietan, administrazioko zirrikietan eta akademiako labirintoetan murgilduta dago jada. Arkitekturan alfabetatuak izan ez diren belaunaldiak ere, egon badaude, bai eta ustez euskararekiko atxikimendua erakusten duten botere publikoak ere.

Hortaz, non dago arazoa? Arkitekturan, euskaraz! Edo... ez? Ingurura begiratu, eta administraritzaren burokraziaren formalismotik aldentzen bagara, nekez topatuko dugu euskaraz egiten den proiekturik. Hasierako ikerketa batean, Euskal Herriko Elkargoen ordezkarietzan euskaraz oso osorik egindako eta ikus-onetsitako proiekturik ez zen ageri (bai, ordea, han-hemenka, zati bat edo beste euskaraz zutenak). Aurrez aurrekoa bai, euskaraz egingo da, baina zaila izango zaigu euskaraz idatzita dagoen proiektu bat aurkitzea, are gutxiago euskaraz idatzita dagoen aurrekontu bat, eta oraindik eta gutxiago euskaraz sinatuta dagoen obra-zertifikazio bat.


Euskararen erresuma hirigintzan beharrezkoak diren itzulpenetan finkatu da, eta oraindik ez dakigu Plangintza edo Egitamu deitu behar zaion. Orojakile eta ahalguztidun izatea

hain gustuko duen arkitektoen kolektiboak, harrigarria bada ere, beste lanbide baten esku utzi du sormenaren «gorpuztea». Itzultzaileek lan eskerga egiten badute ere —maiz, ezinezkoak diren epeak betez—, urteren buruan adieren eta hitzen esanahiak elkarren kontra jotzen hasi dira, EAEko Lurzoru Legeko eta bestelako araudien terminoek talka egiten baitute.

Terminologia-gatazka hori gaztelaniaz —edo beste edozein erderatan— ere gertatzen dela argudiatu badaiteke ere, euskararen kasuan talka horiek hirigintza eta arkitekturaren profesionalek askatu ezineko korapiloak direla ematen du, eta itzultzaile edo zuzentzaileen esku gelditzen da. Azken finean, nork daki zer erabaki duen Euskaltzaindiak bere azkeneko afarian?

Panorama honen aurrean, kronifikazioaren arriskua benetakoa da, eta agerikoa, euskararen erabilera eta hizkuntza-eskubideen aldeko borrokaren behar bada ikusita. Nola egin aurre horri? Ba al dago baliabiderik proiektu bat euskaraz burutzeko? Zetee (Hegoaldeko Eraikingintzaren Kode Teknikoa) euskaratu omen du Euskal Herriko Unibertsitateak, 12 euroren truke bete beharreko araudi hori euskaraz betetzeko beta duzu... lehenago Errege Dekretu batek aldatzen ez badu, behintzat.

Akaso, etsita gaude. Baina, konturatzen al gara zer garai historiko bizi dugun? Arkitekto euskaldunak beti egon badira ere, gaur egun arkitektura euskalduna dago! Proiektuak euskaraz burutzen dira, euskaraz pentsatu, euskaraz eztabaidatu! Baina euskaraz «egikaritzen» al dira? «Egikaritu» hitza 'ejecución' adierazteko erabili behar zela esan zuenak obrarik zapaldu al zuen inoiz? Proiektuak



Irudia ~ 2016ko topaketetan sortutako grafikoa, arkitektura eta euskararen prozesua irudikatzen duena. Egilea ~ Ibai Gandiaga.

euskaraz bisatzen al dira? Euskaraz lortzen al dugu lizentzia? Euskaraz bidaltzen al ditugu zertifikazioak? Jakingo al genuke egiten?

UEUko 2016 eta 2017ko topaketak

Hau guztia buruan, UEUren Arkitektura Sailak topaketa batzuk egiteko asmoa agertu zuen, zeinak 2016 eta 2017an burutu ziren, Eibarreko Markeskoa Jauregian. Deialdia arkitektura, hirigintza zein arkitekturako ikasketekin zerikusia duen edozein lanbidetako profesionali luzatu zitzairen, mundu profesionalaren eta euskararen inguruko hausnarketa kolektibo bat sustatze aldera.

Topaketak arkitektura, hirigintza eta diseinuaren inguruan euskaraz lan egiteko desioa zutenen arteko elkarretaratze bat bezala pentsatu zen. Azken finean, profesionalen artean hitz egitean euskarazko ekoizpena «egon, bazegoela» ikusten zen; batek plegu batzuk eskuratu zituela lehiaketa publiko batetik, besteak aurrekontu bat prestatu zuela... Jardunaren xede nagusia, ez bairik gabe, arazoa mahaiaren gainean jartzea zen, eta bide batez sare bat sortu.

2016ko bileran, UEUko 44. Udako Ikastaroen testuinguruan burutu zena, arkitekturaren munduan (mundu horretan hirigintza, diseinua, barne-diseinua eta abar ulertzen direlarik) euskaraz duen egoera aztertu zen, guztion artean AMIA (Aukerak, Mehatxuak, Indarguneak eta Ahuleziak) diagrama bat sortuz, egungo egoeraren diagnostiko bat osatze aldera. Era berean, arkitekturaren prozesuan (bezerotik obra bidean) zer-nolako oztopo topatzen diren aztertu zen, garai bakoitzean euskaraz aritzeko baliabide minimoak zeintzuk diren aztertuz.


Bigarren bilera, 2017ko udazkenean, diagnostikoaren ondorioak azaldu eta balizko bide-orri baten diseinuan zentratu zen. Bertan, topaketetan sortutako taldeek epe motzeko ekintzak eta mugariak finkatu zituzten.

Bi deialdien artean 30 lagunen izen-ematea egon zen, eta nabarmendu beharra dago parte-hartzaileen aniztasuna, bertaratu zirenen artean lanbide liberala jorratzen zuten arkitektoak, udal-arkitektoak, unibertsitateko irakasleak, itzultzaileak, Arkitekturako ikasleak zein Arkitektoen Elkargoko ordezkariak egon baitziren.

Euskara arkitekturaren munduan

AMIA teknikaren bitartez, gaur egun zein etorkizuneko agertokietan euskararen egoeraren analisia burutu genuen. Horrela, bada, egungo egoera aztertzeko ahulezietan indarrei dagokienez, alde negatiboan euskarazko eredu, oinarri edo baliabideen urritasuna, edo gabezia, salatu zen. Era berean, beste hainbat forotan agertzen den euskara teknikoaren, edo idatzizkoaren, eta kaleko euskararen artean distantzia azpimarratu zen, ahulezia garrantzitsu bezala, neologismoen aukeraketa edo egokitasunari buruz jardun zelarik («Egikaritze-proiektua» vs «Gauzatze-proiektua», kasuak kasu).

Jarraian, arkitektura-proiektuek duten eragile kopuru handiari eta prozesuaren konplexutasunari buruz jardun ginen, bai eta prozesu horren parte diren erakunde publiko zein pribatuaren inplikazio faltari buruz ere, adibidez euskaraz egindako proiektuak saritzen direnean. Horren harira, bertaratu zen udal-arkitekto baten esanetan, egin izan dira euskara saritu nahi izan duten esleipen publikoak, adibidez



HAPO baten idazketa-prozesuan eta hirigintza-taldeko atal bakoitzeko erantzule euskaldun bat bilatzen zutenak (hots, arkitektoa, abokatua, ingeniaria...), baina, tamalez, oso talde gutxi aurkeztu ziren (zehazki, bi), eta gainera batek itzultzaile bat jarri zuen talde baten «buru», euskaraz egutza justifikatuz. Azkenik, betiko leloa: euskaldunok geure burua gutxiesten omen dugu.

Indarren kasuan, ahulezien kontrapisutzat har daiteke, hain zuzen ere, alfabetatuak izan diren arkitektoen gaztetasuna, bai eta udal zein diputazio edo gobernuko postuetan sartzeko izan duten aukera. Zentzu horretan, erronka handia dela aitortzen da, dena baitago egiteke, baina euskal munduaren betiko militantzia eta talde antolatua izateko ahalmenari erreparatu zaio. Azkenik, euskarak dakarren gertutasuna (txikia izateak ez du zertan txarra denik esan nahi).

Etorkizunari dagokionez, bi alderdi jorratu ziren, negatiboa (mehatxuak) eta positiboa (aukerak). Mehatxuei buruz ari ginela, kanpoko erdarek mundu globalizatuan duten indarra eta euskarak horientatik jasotzen duen presioa azpimarratu ziren. Azkenengo barometroei kasu eginez, euskaltzetasunak azkenengo urteotan bizi izandako beherakada ere azpimarratu zen mehatxu moduan, joerak jarraitzen badu, euskararen egoerak kronifikatzeko itxura duela uste baita. Akaberan, euskararen txertaketak mundu profesionalean denbora- eta baliabide-ordain bat duela ikusita, lan-munduaren prekarietateari ere egin zitzaion so.

Aukeren atala 2017an jorratu zen lanaren oinarria izan zen, bertan hitz egin baitzen etorkizun batean, modu positiboan, euskararen egoera hobetzeko egin daitezkeen ekintzei

buruz. Alde batetik, nahiko argi gelditu zen, ia aho batez, sare bat osotzea behar-beharrezkoa zela, nonbait baliabideak, eskarmentua eta lana banatzeko. Baliabide horien artean, arkitektura-prozesu batek daramatzen materialak ere aipatu ziren, hala nola prezioen baseak, baldintza-pleguak, memoriak eta EKTren justifikazioena. Hor ere bai, itzulpengintza-lan bat falta zela detektatu zen, eta zenbait kasutan Espainiako Estatuak bere gain hartu beharreko ardura izango zela (EKTn kasu), oinarri legaleko testuak baitira.

Ondorioak eta etorkizuna

Euskararen eta arkitekturaren gaiaren inguruan mahai-inguruan irten zen ondoriorik garbiena arkitekto euskaldunok nor bere lubakian bata bestearengandik sakabanaturik lanean gabiltzala ikustea izan zen, inolako sare edo erreferenterik gabe, eta gaztelaniazko atsotitzaren esanahi gordinenari men eginez, banatu eta irabaziko duzu. Baina kolektibotasunetik ez bada, gaur egungo egoerari ez diogu irtenbiderik topatuko, gauza da, kolektibotasun horren beraren eraikuntza egiteke daukagula gaur gaurkoz. Nola burutu ordea?

Arkitekto euskaldunena baino areago, arkitektura euskaraz egiten dugun arkitektoon taldea edo sarea eratzea ezinbestekoa da beraz, eta gaur egungo teknologia-baliabideak erabilia, komunitate horren eraikuntza modu digitalean egin liteke, sarea sarean sortuz. Edonola ere, sorkuntza horrek elkarretaratze bat beharko luke abiapuntutzat, elkar-ezagutze bat, garapen digitalari bidea emango dion bilkura analogiko bat. Horregatik, arkitekto euskaldunen jardunaldi batzuk antolatzearen beharra agerian geratu zen.

Arkitektura eta hirigintzaren munduan euren lana euskaraz egiten duten profesionalak egon baldin badaude, eta, gainera, hainbaten lana erakutsi ez ezik, saritzeko modukoa ere baldin bada, zeren zain gaude? Euskaraz lan egiten dugun arkitektoen harrotasuna publikoki aldarrikatzeko garaia iritsi da, eta horretarako aitzakia behar baldin bada, ekin diezaiozun aitzakia horren eraketari.

Horretarako, egun badaude arkitektura eta euskararen inguruan nolabait antolatuta lanean dabiltzan hainbat talde, izan EHUren euskal adarraren barruan, UEUren inguruan, Aldiriren beraren orbitan dabiltzanak, edo baita UEMA bezalako erakundeen itzalean dihardutenak ere. Abian diren guztien indarrak elkartuko dituen sinergiak sortu behar ditugu, eta horretarako, elkar ezagutu eta indarrak batzeko parada eskainiko diguten topaketak antolatzea da erronka, guztiok norabide berean bultzatzea.

Aipatu ospakizun horrek ahalik eta arkitekto euskaldun gehien biltzeko aukera emango liguke, sare bat osatzeko, oihartzun mediatikoa lortzeko, atxikimendu gehiago lortzeko, eta horrela, errazagoa izango litzateke webgune bat sortzea, finantzaketa lortzea, eta arestian aipatu diren helburuak lortzeko urratsak ematen hastea, hala nola bere garaian burutu zen eraikuntza eta hirigintzaren euskarazko hiztegiaren bultzada, dibulgazioa eta berrikusketa abian jartzea; hirigintza-mailan, batik bat arau eta legeetan finkatuta dauden hamaika definizio eta izendapen euskaraz ere normalizatzea; euskaraz lan egin nahi duten administrazioentzat, euskaraz dihardugun arkitektoen mapa bat sortzea. Eta nola ez, batean eta bestean gure lubakietatik bakardadean sortzen ditugun euskarazko eredu horiek, gure moduan bakardadean ari diren gainontzeko arkitekto euskaldunekin trukatu ahal izateko benetako baliabideak guztion eskura jartzea.

Eranskina: Nola erabiltzen dugu euskara?

Ondoren, topaketetan zehar jasotako hainbat testigantza laburbiltzen dira, euskararen egoeraren inguruan esanguratsuak izan daitezkeenak, parte-hartzaileen hitzetan.

«Gure artean euskaraz egiten dugu, udal-teknikariarekin ere bai, baita bezeroarekin ere. Azkenengo pausoa soilik igarotzen gara erdarara».

«Gaur egun udal-arkitektoa naiz, eta udaleko hirigintza sailean euskara hutsean aritzen gara, eta hizkuntza horretan burutzen ditugu txostenak. Sartzen diren proiektuak, ordea, gaztelaniaz etortzen dira, eta guk geuk egiten ditugun proiektuetan ere, bai memoria bai pleguetan, gaztelaniara jotzen dugu. Ez dago corpus bat».

«Estudio txiki batean lan egiten dugu, eta gero aholkularitza tekniko eskaintzen dugu. Gure jarduna euskaraz da osorik, baina proiektuak idazteko orduan, edo gero eredu-materiala erabiltzeko orduan, dena da gaztelaniaz. Ereduetara jo behar ez dugun kasuetan, proiektu txikiak direnean, horiek osoki euskaraz doaz, baina bueno, eraikitzaileak itzulpenak eskatzen ditu. Oraintxe bertan ikastola baten obrarako proiektua garatu dugu eta deitu egin gaituzte itzulpena eskatuz».

«Arkitektoa naiz eta estudio ezberdinekin kolaboratzen dut. Lantaldeetan gehienetan euskaraz egiten dugu, baina dokumentu teknikoetara jotzen dugunean erdarara jotzen dugu, agian araudia erdaraz dugulako... Nik bultzatu ditudan ekimenetan, agian hain teknikoak izan ez diren horietan, hezkuntza-arloaren esparruetan gehienbat, hor bai aurrekontua, bai memoria, eta abar, dena joaten da euskaraz. Hor ez dago arazorik. Esparru horretan oso ohituta daude euskaraz egiten, eta proiektuak oso-osorik euskaraz ematen ditut eta hor arazorik ez da egoten. Ordea, proiektu teknikoetara jotzen dugunean, justifikatu behar denean proiektu bat».

«Unibertsitatean hainbat gauza ikusten dira: adibidez bibliografia erdaraz dago, ia dena. Terminologia aldetik ere arazoak datoz, adibidez «manzana» nola esan «etxe-irla», «etxe-uhartea». Gero, belaunaldiak belaunaldi, erdara ikasleengan barra-barra entzuten da. (Euskarazko) irakasleen artean ere erdara hitz egiten dutela ikusi daiteke. Irakasleen bileretan, adibidez, nahiz eta guztiak euskaraz jakin gaztelaniara jotzen da, zenbaitetan».

«Oraintxe bukatu dut karrera, eginiko lanak Bilbo aldean izan dira, batez ere eragile sozialekin egin dut lana. Testuinguru horretan hiztegi tekniko nolabait alboratu behar da eta bestelako hitz batzuk erabili».

«Donostiako arkitektura-estudio batean egiten dut lan eta lanean nabil estudio txiki batean, nagusia, bere bazkidea eta ni. Nagusiarekin euskaraz mintzatzen naiz, baina beste lankideak ez daki ondo euskaraz, eta hortaz lan osoa erdaraz egiten dugu. Lehen komentatu den bezala, legedi aldetik askotan, Lurzoru Legean kasu, irakurtzean beti gaztelaniaz irakurtzen dut hobeto ulertu dezakedalako».

«Erakusten dugu nola idatzi euskaraz modu egoki batean, terminologia ondo sortzeko... Askotan, ordea, motibazioa zapuztu egiten zaie ikasleei, gero ikusten baitute euskara ez dela erabiltzen».

«Udal-arkitektoa naiz, eta interesa nuen gai honetan, euskaraz lan egiteko topatu ditudan zailtasunak direla-eta. Nik euskaraz egiten dut lan, eta itzulpenak ematen dizkiot euskarako teknikariari, eta zalantzak izatekotan kontsultatu egiten dizkigu. Zer zailtasun topatzen ditugu, hortaz? Bada, baimenak eskatzen ditugunean, Eusko Jaurlaritzan, Costasen, edo edonon, euskara hutsean bidaltzen baduzu dokumentazioa, hilabete bat iraun beharrean erantzuna, bai hiru edo lau hilabete itxaron behar dituzu beraien erantzuna jaso arte».
